

Bete dezagun Donostia euskaraz

2015eko Martxoak 28: Euskararen aldeko manifestua

Hizkuntza leku bat da eta elkarrengana zabaltzen dizkigu ateak. Donostian 122.000 lagun baino gehiago gara euskaraz jakin edo euskara ulertzen dugunak. 122.000 ate dauzkagu zabaltzeko, 122.000 leku ezagutzeko.

Donostia Euskararen Hiria da eta lehen hitza euskaraz egiteko, egunerokoan euskaraz aritzeko deia luzatu nahi dizuegu gaur; lantokian, eskolan, etxean, kalean, dendan, tabernan. Donostiako Udalean ere konpromiso hori hartu dugu. Zerbitzuz zerbitzu abiatu ginen eta, gaur, udaletxeko bulegoetan, prest gaude zu euskaraz hartzeko. Kultur Etxe, liburutegi, museo, antzoki eta kiroldegietan ere euskaraz hartuko zaitugu. Lehen hitza euskaraz esaten dizugunean, balia ezazu aukera! Donostian ere euskaraz! Dendetan ere euskaraz hartuko zaitugu, lehen hitza beti euskaraz egingo dugu. Tabernetan ere euskaraz hartuko zaitugu, lehen hitza beti euskaraz egingo dugu. Kiroldegira joaten naizenean lehen hitza euskaraz egiten didate. Nik ere euskaraz egiten dut.

Victoria Eugenia Antzokira antzezlan bat ikustera joaten naizenean ere euskaraz agurtzen naute.

Guneak prest daude, eta gu ere bai, donostiarrok ere bai, gazteok ere bai, euskaraz. Ilobekin, seme alabekin eta lagunekin euskaraz egiten dut. Gure hizkuntza zaharra bizirik dagoelako.

Lehenengo hitza euskaraz egiten dudan bakoitzean, gune bat euskalduntzen dut. Euskara ikasi bai, baina erabili ere egiten dut.

Euskararako atea zabaltzen diot ondoan daukadanari. Auzo eta herrietan: Egian, Grosen, Altzan, Amaran, Parte Zaharrean, Antiguan, Martutenen, Loiolan, Erdialdean, Aieten, Añorgan, Ibaetan, Zubietan, Igeldon, Intxaurrondon, Ulian, Bidebietan ... ateak zabaltzen ditut.

Hitz egin eta hitza eragiten dut. Amarekin ere euskaraz, aitarekin ere euskaraz, seme alabekin ere euskaraz, lagunekin ere euskaraz, lankideekin ere euskaraz...

Eta gaur, Donostia, gunez gune, auzoz auzo, kalez kale, euskaraz betetzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dut. Hemen gauden guztiok euskaraz aritzeko konpromisoa hartzen dugu, lehen hitza euskaraz egiteko. Donostian ere euskaraz!